

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2015

OSALAN

1. Hainbat instituzioentzako diru-laguntza, Osalaneko Kontseilu Nagusian eta batzordeetan parte hartzeagatik.
2. Prebentzio ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren 2015erako deialdia
3. Lan-arriskuen prebentzio-arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntza 2015-2016

1.- Izenburua

HAINBAT INSTITUZIORENTZAKO DIRU-LAGUNTZA, OSALANeko KONTSEILU NAGUSIAN ETA BATZORDEETAN PARTE HARTZEAGATIK

2.- Araua

- 7/1993 Legea, abenduaren 21ekoa, OSALAN sortzeari buruzkoa.
- 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 24koa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- 10/1997 Legea, ekainaren 27koa, OSALAN sortzeari buruzko Legea aldatzen duena.
- 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duena.6.
- 191/2002 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzen duena.
- Ebazpena, 2015ko uztailaren 3koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, 2015rako EAeko Aurrekontu Orokorren kargura, diru-laguntza bat eman zaio Euskadiko Unión General de Trabajadores (UGT) konfederazio sindikalari, Osalaneko Kontseilu Nagusian eta Batzordeetan parte hartzeagatik.
- Ebazpena, 2015ko uztailaren 2koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, 2015ko EAeko Aurrekontu Orokorren kargura, diru-laguntza bat eman zaio Euskadiko Comisiones Obreras (CCOO) konfederazio sindikalari, Osalaneko Kontseilu Nagusian eta Batzordeetan parte hartzeagatik.
- Ebazpena, 2015ko uztailaren 8koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, 2015ko EAeko Aurrekontu Orokorren kargura, diru-laguntza bat eman zaio Euskal Enpresarien Konfederazioari (CONFEBASK), Osalaneko Kontseilu Nagusian eta Batzordeetan parte hartzeagatik.
- Ebazpena, 2015ko uztailaren 2koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, 2015ko EAeko Aurrekontu Orokorren kargura, diru-laguntza bat eman zaio Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari, Osalaneko Kontseilu Nagusian eta Batzordeetan parte hartzeagatik.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Izendun diru-laguntza hauen bidez ezartzen dira OSALANeko Kontseilu Nagusiaren eta Lurralde Batzordeen bileretan parte hartzen duten gizarte-eragileentzako laguntzak. Bestalde, diru-laguntzaren ordainketa egiteko, kopuru hori Lan Arriskuen Prebentzioari loturiko jardueretarako erabili dela justifikatu behar da aurretiaz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

OSALAN sortzeari buruzko abenduaren 21eko 7/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Kontseilu Nagusia da gizarte-eragileek OSALANen parte hartzeko duten organoa, eta horren bidez onartzen dira Erakundeko Zuzendaritza Nagusiak Laneko Segurtasunari eta Osasunari lotuta prestatzen dituen programa eta jarduketa-planak.

1.- Izenburua

**PREBENTZIO ORDEZKARIEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EMATEKO
BAIMENAREN ETA DIRU-LAGUNTZAREN 2015ERAKO DEIALDIA**

2.- Araua

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. 35.-37. artikuluetan ezartzen ditu prebentzio-ordezkararen irudia, haren eskumenak eta ahalmenak.

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 6koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2015eko ekitaldian prebentzio-ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru- laguntzaren deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematea nahi duten erakunde publiko zein pribatuei dei egitea.

Erakundeen baldintzak: Hezkuntza Sistemak aitortutako eta homologatutako ikastetxeak, edo Gizarte Segurantzako Lan Istripuen eta Lanbide Gaixotasunen Mutualitateak edo egiaztatutako Prebentzio Zerbitzuak izatea.

Prestakuntza-ekintzak oinarrizkoak izango dira, Lan Arriskuen Prebentzioari eta Osasunari lotutako Lanbide arteko Akordioan ezarri bezala, eta bi zati izango dituzte: bata 16 ordukoa, araudi-arloko prestakuntza, eta bestea 32 ordukoa, prestakuntza teknikoa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2015eko deialdiaren bitartez, 28 prestakuntza-erakunde baimendu ziren Bizkaian, 16 Araban eta 25 Gipuzkoan.

Guztira, araudi-arloko 53 ikastaro (10 Araban, 23 Bizkaian eta 20 Gipuzkoan) eta arlo teknikoko 42 ikastaro (6 Araban, 22 Bizkaian eta 14 Gipuzkoan) egin dira.

1.- Izenburua

LAN-ARRISKUEN PREBENTZIO-ARLOKO IKERKETA-PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA 2015-2016

2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 4koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, lan-arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak ematea arautzen da. 2015-2016.

EBAZPENA, Osalan Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Euskal Erakundearen Zuzendari Nagusiaren 2015ko abuztuaren 17ko, zeinaren bidez ebazten baita lan arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzen 2015eko deialdia. 2015-2016.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lan-arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-programak prestatzea, sustatzea eta garatzea.

Nori zuzendua: EAEn erroldatutako pertsona fisikoak eta EAEn kokatutako pertsona juridikoak (publikoak zein pribatuak).

Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa: Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100eraino.

Gauzatzeko aldia eta epea: Diru-laguntzaren xede diren jarduketak urtebeteko epean egin beharko dira, emakidaren jakinarazpen ofiziala jaso eta ondorengo egunetik hasita.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

42 proiektu aurkeztu ziren, eta 6 proiekturi eman zitzaien laguntza. 36ri, aldiz, ukatu egin zitzaien laguntza, proiektuaren kalitate zientifikoak ez baitzuen 25 puntuko gutxienekoa lortu.